

Denok gara

e u s k a l d u n o n
Egunkaria



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 65. alea 2003ko martxoaren 14a



Arrate Azkona
Urrezko Orkatila



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefonoa: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Lakuesta optika

Santa Ana kalea 22C behea / Telefonoa 943 75 30 59

“Azken urte honetan gero ta ume gehixao atenditzen dittut”

Noiztik daukazue optikia Soraluze?

Hemengua oin dala 8 bat urte zabaldu genduan. Lehenao aittak Eibarren euki zeban ta han be herriko jende asko etortzen jakun, eta biharra zeguanez Soraluze zentro bat zabaltzia pentzau genduan.



Zeintzuk egitten dozue lan hemen?

Nik bakarrik, Ainhoa Lakuestak.

Ze zerbitzu eskaintzen dittuzue?

Graduaziñuak (optometria), kontaktologia (lentilak) eta betaurreko salmentia. Gainera, argazki roiluak be saldu eta errebelatua be egitten dogu.



Zeintzuk dira lan honetako alderik onenak? Ta txarrenak?

Onena nik neretako lan egitten dotela da, inungo jefe gabe. Lan honetan jendiakin kontaktuan be bazare eta hori asko eskertzen da. Gainera hemen begixakin egitten da lan ta bestien osasunakin jokatzia ardura haundixa eskatzen dau.

Zelako bezeruak daukazue?

Danetikan, umietatik zaharretara arte. Azken urte honetan gero eta ume gehixao atenditzen dittut.



Hilda Koxme

ARIANNE UNAMUNO

Kaiuak gosiak ikusten dozuzenean, plastilina zuriz egindakua emoten daben arrainak eskuartian dakazuzenean, arroketa pegauta eta arnasa es-tuakin zarenian, tabernan lurra jota daon arrantzaliakin inona be ez dan gaba konpartitzen dozunian, andreri indarra eta irriparra lapurtu ez dotsen gauza bakarria dala konturatzaren zaranian, koloretako mundua zuri-beltz bihurtzen da, eta orduan ulertzen dozu petroleuak dakan esanahixa ez dala hiztegi-xan agertzen dana. Galdetu bestela Koxmeri.

Bermioko taberna baten baztarran zeuala ezagutu neban nik Koxme. Arrantzalia zana bera, "oin itsaso garbitzailia besterik ez non", esaten zoztan, itsasotik bistia apartatzen ez zebala. "Inok ez jonan sinisten, danak uste jonen hona ez zala helduko, askorik ez behintzat. Han ibiltzen ginan Asturias aldian hango arrantzalieri eron urak garbitzen lagun eitten. Eta oin berriro, harek legatza majo harapatzen dabizen bittartian, guk berdelari eta antxoiari agur esaten dotsegu". Gizon la-saixa da, baina suak hartuta zeuan Koxme. Ta ni ixilik entzuten. "Gainera demasak entzun bihar. Ez daola txarrikerixa hau jasotzeko beste biderikan... oso zatituta heltzen dabilela... baleo be dirurikan ez daola... Gizurra galanta! Ez jotsen ardura gure plateretan janik egongo dan edo ez, eron kolkuak diruz gainezka baldin badare... nahikua! Harek ez dittun gure moduan egunak argitzen dabene-tik gaba etorri arte bizkarra makurtuta ibil-

tzen. Harek burua tente dabela aintzera etor-tzen dia! Lotsarik bare gainera!

Euskaldunak horrek? Ez hoixe! Eruango ahal jittun erok egindako kakak urpera! Ziki-na zikineta onduen! Orduan igarriko jotsen." Bizixa zihero aldatu jakue Koxmeri, eta bere moduan itsasuari lotuta bizi zian da-neri. Bizixa aldatu ez, bizixa kendu dotse ga-lipotak.

Baina dana ez da agintarixen kulpia be. Txarrena da, gastronomiako izen danak (go-zua balitz zikira!) hartu dittuan petroleo fa-moso hau gure begixen bistatik juaten da-nian, petroleo-ontzixak gure kostalde ondue-tatik pasatzen jarraituko dabela, beste mila apurtuko diala, Kich jaunak Espainiako na-zionalitatia eta erregian beran babes osua eu-kitzen jarraituko dabela. Danak berdin ja-rraituko dau. Baina itsaso bazterrak ez, eta bertan bizi zian animalixa eta landarak ez dia berpiztuko, eta Koxme modokuak bez. Eta ze eitten dogu guk, herritarrok, hau kon-pontzeko? Gure kotxietako deposituak gaso-linaz beteta daren bittartian, afaltzeko arraina batzeko plastikozko poltzia (bai, arrainen to-kixan gure ibaixan hainbeste, eta gero ta uga-rixago, ageri dan espezie berri hori, Plasticus invasorum) falta ez dan bittartian lasai lo egingo dogu, gure ohe epeleko izara zurixok ziprirtindu arte. Poliki-poliki geure hilotza eginaz gabiz, amesetan egitten dogun bittar-tian. Koxmen lua ostera, baga batek bota ze-ban aspaldi arroken kontra. Hilda Koxme.

Telegrapak

Aupa irakurle. Stop. aspaldixan ez gara elkarrekin egon. Stop. pentsatu nahi dot nik zure falta beste sentitu dozula zuk neria. Stop. ziur nago baietz. Stop. maite zaitut! .Stop. Amodio gutunen lehiaketara aurkez-teko epia zabalik dago. Stop. baina mesedez originala izan!.Stop. epai-mahikuak eskertuko dotsue. Stop. Aratustietan ondo?.Stop. zapatuan bai ezta?. Stop. eta martitzenian?.Stop. Umien gaba izan zan!.Stop. Polikiroldegixa be zabaldu da. Stop. jopelaz, ze ondo! goazen denok pizi-nara! eta gero gimnaziora, eta zzzau-nara.Stop. Tzupi guay! .Stop. ez dira estatuko kirol instalaziorik onenak baina tira...Stop. baina tira zelako mobidak daren! .Stop. futbitoko orduak dirala, jubilatuen aerobika dala...Stop. Gogorragua da Egunkarikua! .Stop. itxi eta kitto. Stop. hurrenguk igual gu gara. Stop. ze onartu biharra dago Pil-pileaneko argazki zarra esaterako "bastante abertxale" izaten dala. Stop. eta gai-nera euskeraz. Stop. eta gainera kola-boratazailiak dauzkagu. Stop. Ui, ui, ui! Juan Solomo enteratzen bada...Stop. ba barrura. Ba barrura!. Stop. hori bai, merezi dogun moduan aurretik ondo egurtuta.Stop. Bai eus-karari, adierazpen askatasunari, herriari, Euskaldunon Egunkariari!. Stop. Atxilotuak askatu!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzguenea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoi-zpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Badira ia bi urte Pil-pileanek Arrate Azkona elkarrizketatu zuela. Orduan Espainiako Jubeniletako alturako txapel-dun gelditu zela eta, egin genion elkarrizketa. Ia bi urte beranduago, Arratek salto hiru-koitzeko Espainiako junior txapelketa irabazi du, orduan baino 67 zm gehiagoko saltoa eginaz.

Arrate Azkona Eibarko Unbeiko atletismo pistan

Zorion agurrak



Raquel Criado
Matxoaren 30a
Zorionak moñoña!!
Zure koñatu eta loiban partez.



Jose Miguel Criado
Matxoaren 19a
Zorionak morrozko!!
Zure koñatu eta loiban partez.



Ainhoa Velazquez
Matxoaren 1a
Zorionak!!
Jarraitu zaran modukua izaten.
Omar eta etxeak maitasunez.



Jose Luis Catalan
Martxoaren 20a
45 urte
Zorionak eta zure senidiek egun hori ondo pasau deizula.
Senideen partez



Beñat Catalan
Martxoaren 18a
13 urte
Zorionak!!Etxeko mutil gaztiena aurrea doia. Segi gogor!
Senideen partez.



Niko Mendia
Zorionak ezkonberri!
Bazuan ordua!
Dantza taldeko lagun partez.

Julio Criado
Matxoaren 20a
Zorionak gizon!!
Zure koñatu eta loiban partez.

Loli Perez de Heredia

Matxoaren 22a
Zorionak! beti ez dira 50 urte betetzen, ondo aprobetxatu.
Lagunen partez.



Ione Errasti
Martxoaren 19a
Zorionak txikito!!
Txintxua izan eehh!!
Gurasuen partez

hildakuak

Maria Pilar Zuazo, Serafin Bolunburu, Victorio Bilbao, Luis Aristi

jaiotakuak

Unai Quintas
Leire Ruiz

Merkatu Txikia



BEKAK

*Uda Erresuma Batuan

Hezkuntza, Kultura eta Kultura Ministerioak, udan Erresuma Batuan ingelesez ikastaroak egiteko 2.750 laguntza eskaini ditu. Egonaldiak 4 astekoak izango dira uztaila eta abuztua artean. Laguntza hauek 20 urtetik beherakoentzat dira. Epea: apirilaren 2a. (Deitu 943741461 tlfonora)

*Uda Frantzian

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, udan Frantziako ikastegi desberdinetan egonaldia eta frantseko ikastaro bat egiteko 455 laguntza emateko deialdia egin du. Egonaldia 4 astekoa izango da uztaila eta abuztua artean. Laguntza hauek 20 urtetik beherakoentzat dira. Epea: apirilaren 2a. (Deitu 943741461 tlfonora)

LAN ESKAINTZAK

Eibarko Udalean 7 udaltzain postu betetzeko oposizio lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia.

Lehen mailako lanbide eziketa titulua, eskola graduatua edo titulu balioakide bat eta euskarako 2. Hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: martxoaren 15a. (943-74-14-61)

Ondorengo lanpostuetan hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu: 901222901 telefonora deitu. (LANGAI)

*Debabarreneko enpresak **mekanikoak behar ditu.** Erref. 96287/1

*Debabarreneko enpresak **komertzialak behar ditu.** Erref. 95954/1

*Debagoieneko enpresak **teknikaria behar du** Erref. 95694/4

*Durangoaldeko enpresak **tornero eta fresadoreak behar ditu.** Erref. 96872/3

*Debabarreneko enpresak **ingeniari informatikoa behar du** Erref. 97114/6

*Eibarko enpresak **PRL teknikaria behar du** Erref. 97200/3

*Eibarko enpresak **promotorea behar du** Erref. 96939/3

*Debabarreneko aldi baterako enpresak **informatika teknikaria behar du.** Erref. 97548/1

BESTELAKOAK

*Urtronik markako **goxoki makina salgai.** Urte eta erdi, temperatura bikoitza
Merke: 943 74 26 21

***Bi CD erreproduktore salgai** 943 74 26 21

***Kotxea salgai.** Rover 216 GSI Merke
635 72 30 26

***Ford Scorpio 2500 turbo diesel salgai.** 649971053

***Idazmakina berria salgai.**
943 75 17 30

Gutunak

Euzko Gaztedin badakigu hamaika ikusteko jaiok garea guztiok, baina Euskal Herriarekiko gertatzen ari diren erasoak sinestezinak suertatzen zaizkigu. Oraingo honetan Egunkariaren aurka jo dute eta honekin bat, kate moduan, Argia, Jakin eta Ikastolen Elkarteak, guztiak ere euskararen aldeko

Erakunde eta komunikabideak. Euskara gure hizkuntza izatetik, indarkeriaren hizkuntza izatera pasa ote da? Jadanik ez dago ezer ulertzerik, baina hemendik doakizue zuei, euskalazalazaretenoi, gure elkartasuna eta adierazpen askatasunaren aldeko oihu sakona.

EGItik eraso guzti hauek gaitzetzen ditugu, Euskadiren, euskararen eta euskal kulturarekiko zapalkuntza bezala ulertzen ditugulako.

Euzko Gaztedi (EGI)

Zenbat oskol daude hutsik Soraluzen ?

Zer da oskol huts bat? Bizirik ez duen marraskiloa! Ba Plaentxian 300 oskol hutsik daude! Hau da, 300 etxe huts bizi-rik gabe!

Nola da posible etxe horiek usteltzen uztea demaseko eskaera dagoenean? Nola da posible etxe berriak egin-egin eta zaharrak usteltzen uztea? Etxebizitzaren egoera ulertzeziña da! Etxebizitzaren neurrigabeko prezioak maileguak edo diru laguntzak eskatu eta gure buruak bizi guztirako hipotekatzeraren eramanen gaituzte ! Eta honetarako beharrezkoak dira lan finko bat izatea edo diru sarrera finko batzuk! Eta lan finkorik ez duenak ez al dauka eskubiderik etxe duin bat edukitzeko? Etxe duin bat edukitzea denon eskubide bat izan behar-

ko litzake!

Etxebizitzaren salneurria Soraluzen 1990tik 2002ra %72,68^a igo da! Eta EAEn 1997tik hona %42^a. Lotsagarria da!

Bestalde Babes Ofizialeko etxebizitzak daude ! Hauek prezio baxuagoak daukate baina ez dira denondako irtenbide ! Hauek eskuratzeko diru sarrera finko bat eduki behar duzuelako eta eskatzen diren baldintzak izugarri eta lotsagarriak dire-lako! Hauek al dira laguntza sozialak?

Guzti hauek partxeak dira, ez diete irtenbide errealek ematen arazoari! Irtenbide sozialak behar dira, ez ekonomikoak. Etxebizitza berrien eraikuntza bultzatzen da neurrigabe ! Eta etxe hutsei begira berriz ez dago inongo politika errealek; ez Jaurlaritzatik, ez Foru Aldunditik ez eta Udaletik ere.

Espekulazioa izugarria da, banketxeak, enpresa eraikitzaileak eta beste asko, poltsikoak ongi betetzen dihardute beste batzuen kontura!

Beste arazo bat alokairua da! Ez dago alokairuko etxerik ! eskaera ostera bai ! baina hemen ere ez dago politika errealek!

Guzti hau ikusita, honen inguruan lan egiteko plataforma baten beharra somatzen da; etxebizitza, denon eskubide bat delako! Gonbidapena denontzat luzatzen dugu. Etxebizitza duin bat izatea eskubide bat da eta ez gure buruak hipotekatzeraren eramanen gaituzte zulo beltza. Ostegunean 20:00etan Maisuen Etxean bilera bat egingo da eta plataformaren aurkezpena larunbatean izango da 14:00 aldera. Gonbidatuta zaudete guztiok.

**Etxebizitza duin baten Aldeko
Plataforma Sortzen**

Zer irizten dotsazu?

Bi urte inguru itxita izan eta gero, martxoaren 3an zabaldu ziren berriz Arane Kiroldegiko ateak. Jendeak gai honekiko ze eritzi duen jakin nahi izan dugu.

Badaukazu Kiroldegira juateko ohiturarik ? Zela aurkittu dozu ?



Maite Domingez
10 urte
Ikaslea
Ez naiz asko juan polideportibora, baina frontoia berriztuta dao oin eta piszia ondo dao.



Jon Varela
13 urte
Ikaslea
Pelotan jolastera etortzen naiz, eta aldaketa bakarra frontoiko koloria aldatu dabela izan da.



Agustin Txurruka
51 urte
Torlojugintzan
Asmua daukat hasteko, baina oindio ez naiz hasi eta ikusi doten bakarra frontoia izan da, hau hobeto preparama da oin argi ta bentilazino berrixakin.



Joseba Esposito
22 urte
Ikaslea
Futbituan jolastera etorri naiz, da argixa aldatu dabela konturatu naiz, baita esan dabe hezetasun gutxiao daola baina lurra behintzat oso gaizki dao eta aldageletan ez dao pertxarik.



Angela Viciosa
30 urte
Ofizinista
Pixkat ikusten egon naiz, sarreratik ikusi dot piszia akondizionau egin dabela eta ez dakit beste ezer konpondu daben.
Polideportibua faltan bota izan dot itxitta egon danian.



Puri Salgado
54 urte
Etxekoandria
Gimnasia nao eta aldia ikusi dot, oin hobeto dao, igual goiko aldia konpondu biharko leukie, baina bestela ondo dao.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.

Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soralueze

GIPUZKOA

Parkinsondun gaixoendako egoitza berria Eibarren

Joan zen ostiralen, martxoaren 7an, Marcial del Amo (Parkinsondun gaixoa) eta Jesus Astigarraga eibartarrak izan ziren herrian. Marcialek eta Jesussek Eibarren parkinson gaixotasuna duten pertsonendako egokitu duten egoitza berriaren inguruko argibideak eskeini zituzten Udalean antolatu ziguten prentsaurrekoan.

Eibartarrek azaldu zigutenez, "Parkinson gaixotasuna daukenak atenditze-ko oso zerbitzu gutxi dago. Gizarte Segurantzza be, gaixotasunak aurrera egin ahala ez da gaixuak bihar dittuan atentziñuen kargu egitten". Larritasun horren adierazle da, gaur egun bailaran gaixotasun hori duten gaixoei Donostiako zentru batera joan behar dutela, hain beharrezkoak dituzten ariketa fisikoak egiteko toki egokituena bila. Egoera horri buelta eman nahian eta ahlegin askoren ostean, Eibarko Udalak Eibarko Kiroldegian 70 m2 inguruko lokal bat utzi eta egokituko die. Apiril alderako lokala egokituta izatea eta pertsona bat egun erdiz hartzea dute helburu eta



bien bitartean herriz herri informazioa zabaltzen eta Udal ezberdinei laguntza eskatzen dihardute bi Eibartarrok.

Euren esanetan, Debaberrean 70-80 gaixo inguru daude diagnostikatuta eta beste asko eta asko gaixotasuna dutela ere ez dakitenak. Ezjakintasuna omen da gaitzaren alderdirik okerrera, pertsona bat gaixo dagoela konturatu ezean

arazo larriak sortzen direlako, batez ere familia askotan. Gaixotasuna diagnostikatu eta hala bada onartzea omen dira lehenengo ezinbestean eman beharreko pausoak.

Informazio gehiago nahi duenak Udaleko Ongizate Zerbitzuan dauka horretarako aukera, 943 753043 telefonora deituta hain zuzen ere.

Etxebizitza duinaren aldeko plataformaren aurkezpena zapatuan 13:30etan.

Zapatu honetan, hilak 15, "Etxebizitza duin bat izatearen aldeko plataforma" aurkeztuko dute Plaza Berrian. Bertan plataforma hau osatzeko aurreko hilabeteetan lanean jardun duen taldeak prestatu duen txostena aurkeztuko da.

Txosten horrek, Soraluzeko etxebizitza berrien prezioak "lotsagarriak" dirala, kredituak lortzeko dauden baldintzak "jasanezinak" dirala, babes ofizialeko etxebizitzak egiten direnean hilean 120.000 pezetatik gorakoendako izango direla, alokairuko eskeintzarik ez dagoela, banketxeen eta konstrukto-



ren espekulazioa izugarria dela eta erakundeek ez dutela egoera honen aurkako politika errealik bultzatzen adierazten du. Lan talde honen helburua plataforma hau sortu eta lan egitea da.

Kontzertuak Gaztetxean

Martxoaren 14an Gaizkiñe taldeak kontzertua eskeiniko du 22:30etan eta martxoaren 21ean Juke Box eta A Lune taldeak izango dira 20:30etatik aurrera Gaztetxean arituko diranak.

Kontrargiren erakusketak Kiroldegian

Datorren martxoaren 18tik 29ra bitartean, Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako argazki erakusketa izango da ikusgai kiroldegian. Argazkiak Kontrargiko kideak ateratakoak dira.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



EROSLE

Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

Jarraipen handia Egunkariaren aldeko egunean. Euskalgintzak Herri Batzordea sortzeko deialdia egin du.

Martxoaren 23an, ostegunez Kontseiluak, Egunkariko Langileek eta sindikatuek Euskal Herr osoan deitutako Elkartasun Egunak jarraipen oso handia izan zuen herrian. Herriko euskalgintzak antolatuta ekimen ezberdinak egin ziren egunean zehar. 11:30etatik 12:30ak bitarteko lanuzteak aspaldiko urteetako jarraipenik handiena izan zuen; Ikastetxeetan eta komertzioetan ia erabateko jarraipena izan zuen eta pixkat bajuxeagoa lantegietan. Euskalgintzak antolatuta eguerdiko 12:00etan egin zen konzentrazioan 150 lagun baino gehiago batu ziren. Arratsaldean harpidetza mahaia jarri zuen Euskalgintzak kalean eta 18:30etan Egunkariarekin jolas egin zuten Plaza Barrira hurbildu ziren dozenaka gaztetxoek. Iluntzeko



20:00etan Udaletxe azpian egin zen konzentrazioan ere 100 lagun inguru batu ziren.

Euskalgintzak bere aldetik, herrian Egunkariaren Aldeko jarduerak aurrera

eramateko beharrezkoa izango den Egunkariaren Aldeko Herri Batzordea osatzeko deia egin du. Bilera martxoaren 24an izango da Maisuen Etxean, arratsaldeko 21:00etan.

Korrika Batzordearen Egitarau Kulturala

Korrikaren 13. edizioa dela eta lehenago egin izan den moduan, herriko talde, erakunde eta elkarte ezberdinak batzen dituen Korrika Batzordea osatu da AEK Euskaltegiaren inguruan. Dagoeneko hiru bilera egin ditu batzordeak eta Kilometroen salmenta eta Korrikaren inguruan prestatu beharrek egitarau kulturala biribildu nahian dabilta. Oraingoz 4,5 kilometro saldu dira saldu beharrek 6etatik eta egitarauan honako emanaldiak aurrikusi dituzte:

Martxoaren 22an

Kasketa Kabareta "Neska politan" antzezlanarekin. 20:30etan Gaztetxean.

Martxoaren 23an

Bat Gehio (Bartzelonatik)

20:30etan Gaztetxean

Martxoaren 27an

Film Laburren emanaldia (Gaztet-



xean).

Martxoaren 29an

Pako Aristi eta Mikel Markez

"Abiadura Handiko urte baten Kronika"

Futbol Partidua Ezozin

Sora-Zestoa



S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Instalaciones Kalebarren S.L.




GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Arrate, Urrezko Orkatiladun jauzilari plazentziarra



Arrate, Eibarko Unbeko kirolgunean egunero egiten duen bi orduko entrenamendu saioan, luzaketa ariketak egiten.

Badira ia bi urte Pil-pileanek Arrate Azkona elkarrizketatu zuela. Orduan Espainiako Jubeniletako alturako txapelkun gelditu zela eta, egin genion elkarrizketa. Ia bi urte beranduago, Arratek salto hirukoitzeko Espainiako junior txapelketa irabazi du, orduan baino 67 zm gehiagoko saltoa eginaz. Entrenamendu gogorrak eginez Arrate egunero ari da atletismo munduan bere etorkizuna jorratzen. Atletismorako dituen dohai harriagarriengatik “Urrezko Orkatila” deitzen diote baina aurrez aurre bere bizitzaren inguruko berbetalditxo bat egin ostean, Urrezko Neskatila deitzea ere ez litzazuke gehiegikeria irudituko.

Gustora 02-03ko pista estaliko denboraldixakin?

Bai, oso gustora nago lortu dotenakin. Espainiako Txapelkun gelditu naiz salto hirukoitzeko junior mailan (12,78m) eta hori zan pixkat buruan zeukaguna. Aurten igual espero neban Espainiako errekorra egittia (12,93m), baina azkenian hoge zentimetrotara geratu naiz. Gero Espainiako Txapelketa Absolutuan ez nintzan nahi bezin ondo ibili (12,39m) baina onenekin esperientzia

“Helburu batzuk ipini eta horrek betetzeko gogor lan egiten ikasi dot, disziplinia eukitzen. Disziplinia eta ahalegina oso garrantzitsua da nahi dozuna lortzeko.”

hartzeko balio izan dosta. Entrenadoriak esan zotan nahi neban beste konpetiziñoren baten ahalegintzia baina ezetz esan notsan. Nahixago dot maiatzian hasiko dan pista irekiko denboraldirako prestatzen hastia.

Ze asmo daukazu pista irekixan?

Pista irekixan konpetiziño gehixao izaten dira Euskadi mailakuak eta internazionalak bebai. Urritik entrenamenduetan gabizenez eta pista irekixa maiatzian izaten danez, sasoi puntu askoz hobian helduko naiz pista irekiko probetara, puntu puntuan. Gauzia ondo badoia, 13 metroko muga hori jausiko da. 13 Metro pasatzen badittut Europako junior mailako txapelketia be hor dago baina egixa esateko ez dakit ze maila dagan European.

Denboraldixan zihar nun eta zela

entrenatzen dozu ?

Astian 6 egunetan entrenatzen dot. Gehixenetan Eibarko Unbeko pistan entrenatzen dot prestatzaile fisikuakin eta astian bi edo hiru aldiz Donostiara, Anotara juaten naiz, Espainiako hautatzailiakin entrenatzera. Bi orduko entrenamenduak izaten dira egunero, Donostiakuak luzetxuaguak. Normalian gimnasioko sesiño gogorrak egiten dittugu lehenengo eta gero hurrengo egunetan korrika, hesi batzuk, salto batzuk eta hola. Hori batez be negu aldi, oin hasten gara pixkat gimnasia jeisten eta kantuan saltuak eta gehixao lantzen.

Zer suposatu dotsu bizitzan atleta izatiak ?

Pertsona moduan asko garatu naiz, neure buruari helburu batzuk ipini eta horrek betetzeko gogor lan egiten ikasi dot, disziplinia eukitzen. Disziplinia eta ahalegina oso garrantzitsua da nahi dozuna lortzeko.

Hasieran gogorra egiten da, lagunekin ibiltzeko denbora gutxi, parranda gutxi... baina dana da txipa aldatzia, pentzatzia; “hau da neria eta ahalegindu bihar naiz ahal doten dana egiten nahi dotena lortzeko”.

Gainera asko urtezen dogu kanpora eta horrek jende asko, lagun asko eta toki asko ezagutzeko aukeria emoten dosku. Hori da atletismuak emoten doston gauzarik onenatarikua.

Zein izan da momenturik onena?

Nere lehenengo Espainiako txapelketia Segobian, 13 urtekin. Hain txikixa nintzan, ez neban espero eta derrepente mejorau neban, salto egin neban 1.83m eta “joe, 1.83 !”, zan munduko txapelketara juateko minimua eta berriz salto egin eta 1.85m eta “hala 1.85 !”. Gurasuak eta ikusliak animatzen, ni negarez... izugarrixa izan zan, lainuetan egon nintzan.

Eta gaizkixen pasatu dozuna?

Segobian hori lortu eta gero bi aste-tan deskantsaua hartu neban eta izugarri bajatu nintzan. Gero hasi nintzan berriz kompetitzen eta berriz gaizki eta gaizki eta hilabete batzuk nahiko geizki pasau nittuan. Baina horrek be laguntzen dau gero gogorrago lan egitten.

Zer sentitzen da Espainiako selekziñuakin juanda ?

Ezebez. Bakarrik kanpora juan bihar zarala eta kanpora gustora juaten zarala. Aurrera egitteko derrigorrez juan bihar zara. Besterik barik. Baina Euskal Herrikuia jartzen dabenian...

Zela dago atletismua Euskal Herrixan ?

Nahiko txarto. Geroz eta jente gutxiago dao. Umiak eta, oso oso gutxi ze mutilak gehixenak futbolian sartzen dira eta futbolian txarrak diranak etortzen dia atletismora. Neskak pixkat gehi-

MARIA AZKONA (ARRATEREN AHIZPA)

Arrateri txikittatik datorkixo zale-tasun hau. Nahiz eta familixan orokorrian kirol zaliak izan, ezin neike esan zaletasun hau familixako inongandik jaso dabenik zehazki. Hasiera baten Arratendako astian pare bat edo hiru egunetan arratsalde pasakua zan haura, bere eguneroko bizitzaren parte haundi bat zela bilakatu dan ikusi ahal izan dogu familixakuok; ikusi eta jasan. Momentu on asko, momentu txarrak be asko, bere albuak egoten saiatu gara beti eta gaur egun beran moduan, familixako danok gara atletismo zaliak; ez dao gaizki! Dudarik gabe, oso harro nago bere ahizta izatiaz” .



Arrateren Garaipenak
15-16 URTEREKIN KADETE MAILAN Espainiako bi errekor:
 Alturan 1,78 m
 Hirukoitzean 12,32 m
 Hexatlon frogan Espainiako Txapeldun
17 URTEREKIN JUBENIL MAILAN Espainiako txapeldun:
 Alturan 1,78
18-19 URTEREKIN JUNIOR MAILAN Espainiako txapeldun:
 Hirukoitzean 12,73m
ABSOLUTU MAILAN
 Hirukoitzean 12,39m. 8.

Noizbait Joku Olinpikoetan parte hartu ahal izatea da Arrateren ametsa.

“Asentatzen danian oso oso jauzilari ona izateko aukerak dauzka, onenatarikua. “Urrezko Orkatila” esaten dotsagu halakoxe orkatillak dauzkalako, urrezkuak”.
I.U. (Prestatzaile fisikoa)

xao baina oso gutxi. Ni gogoratzen naiz ni hasi nintzanean milaka ginala eta oin oso gutxi. Laguntza aldetik eta zeozer jasotzen dogu Kiroldi eta Aldundittik baina ez dao oso ondo nere ustez. Ikuslego aldetik esaten dabe Espainian medallak eta lortu diranez atletismua modan jarri dala baina nik ez dot ikusten hori.

Ah eta ikasketak zela daroiazuz?

Oin Elgoibarren hasi naiz Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza ikasten, bost urteko karrera bat. Berez urte sabatiko bat hartu bihar neban baina, albuak zegalako eta amak esan zostalako hartu egin neban. Lasai lasai hartu dot, irakasgai batzuk hartzen, ze bestela entrenamentuekin ezin dot. Gainera eskolak arratsalde dia eta.

Atletismotik bizitzeko itxaropenik bai ?

Ez dakit. Badago topiko bat atletismotik ezin dala bizi eta, esaten dabena. Neri esan doste atleta batzuk, mobidu ezker eta patrozinatzaile batzuk topau ezker harritu egitten zarala irabazten dozunakin. Dana dala, erreza seguru ez dala baina itxaropena badaukat.

MOTXIAN

Gehixen miresten dozun atletia?

Ez daukat.
Amets bat. Joku Olinpikuak.
Argazki bat ala txapelketa bat.
 Txapelketa bat.
Nobixorik badaukazu? Ez.
Izatekotan atletia izan bihar dau? Behintzat ulertu deixela.
Kirolari on bat izateko sekretua? Disziplinia.

IMMA URKIOLA (ARRATEREN PRESTATZAILE FISIKOA)

Arraten tipologia ikusitta eta dana ondo baldin badoia, lehenengo mailako kirolari bat izan leike hemendik 3 bat urtera. Alturan 2 metruen barreran ibiliko da (Olinpiadetako errekorra 2,07m da) eta salto hirukoitzean 13 metruak aurtan bertan errez pasatu leizke (Espainiako errekor absolutua 13,73m da). Oindio gaztia da baina pixkat sendotu eta asentatzen danian oso oso jauzilari ona izateko aukerak dauzka, onenatarikua. “Urrezko Orkatila” esaten dotsagu halakoxe orkatillak dauzkalako, urrezkuak. Behin traumatologo batengana juan ginan eta traumatologuak unibertsitatan ikasleri orkatilla perfektu batzuk zelakuak izan bihar leukien erakusteko modukuak zira-la esan zotsan. Etorkizun haundixa dauka.

ARATUSTEETAKO ALBUMA

2003ko Aratustietan protagonista asko izan da eta horietako batzuk bildu ditugu Aratusteetako Albumean. Aratusteei ikutu berezi bat eman eta goxagarriago egiten saiatu den jendeari begiratu diogu. Ez daude horretan saiatu diren denak baina daudenak horretan saiatu dira.



Gaztetxetik kalejiran urten zeban jende multzua izen-daezina da. Txapapotiaren kontra, adierazpen askatasunaren alde, tinbalak eta danborrak majo astinduz tabernaz taberna ibili ziran. Badakigu 19:00etan hasi ziralara danak batera baina amaittu ez dakigu ze ordutan eta zela amaittu zeben. Txapo !



Monjaz jantzita baina juxtu kontrako jarrera probokati-bua erakutsiaz, "Super Monjen" taldiak eskuratu zeban aurtengo mozorro lehiaketako gaztetxuen mailako lehenengo sarixa. Zorionak eta zintzoak izan !



Gaztetxuak izan ziran Aratustetako Martitzenari benetako ikutua emon zotsenak. Mozorro lehiaketan sarixa jaso zeben taldietako selekziño bat da argazkian azaltzen dana. Edarrak piezak. Jarraitu holaxe!



"Aratuste hontako gaur da martitzena...mutil/neska gaztiendako egunik onena!". Musikoplantzarrak kalez kale ibili ziran Aratuste-martitzenian. Batez be tabernaz taberna, jende igela eta giro iluna piztu, bertso zaharrak errekuperatuz, barrixak sortuz... Ez zan lehen mailako txaranga bat baina ze demontre! Eskerrak BBVAri bere laguntzagatik.

Belarrak
Loradenda eta Belardenda
Erosketak etxera
daramatzagu
Telef. 943753011
Mugik. 646439040
Gila Zubian Soraluze



ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Ainhoa eta Jurdana

“Sukaldaritza landuak beti eukiko dau garrantzixa!”

Ainhoa Zubizarreta eta Jurdana Laskurain arduradun direla Pil-pilean Euskara Elkarateak Sukaldaritza Ikastaro bat antolatu du. Aurrikuspen guztiak gaindituta 25 lagunek eman dute izena eta beste askok kanpoan gelditu behar izan dute. Ikastaroa astelehenean hasi zen Mahastia elkartearen eta bertan batu-ko dira aipatutako 25 lagunok astelehen eta asteazken iluntziro bi sukaldarion eskolak jasotzeko. Berba egin ditugu eurekin ikastaroaren nondik norakoen berri jakitzeko.

Zer prestaketa dakazue zuek sukaldian?

J: Nik Donostiako Sukaldaritza eskolan egin nittuan ikasketak eta oin Txurruka jatetxian nabil lanian.

A: Ni Donostian nago Sukaldaritza Eskolan ikasten. Oin hiru urte Irlandan egon nintzan lanian hotel baten.

Harrera ona euki dozue ezta?

J: Kristona. Izena emon dabe espero genduan baino doblia pertsonak. Plan- gintza dana aldatu eta bi talde egin ditugu. Ze 25 pertsonak sukalde baten ezin dabe ezer ikasi.

Ze plater landuko dittuzue?

A: Danera 4 saio izango dira eta saio bakoitzian lehenengo plater bat eta psotria egingo dira.

J: Jentiarri etxian egiten ez dittuan moduko platerak egiten ikasteko aukeria emotia da ikastaruan helburua; Berenjena Betiak, Txokolatzeko Buñue- luak, Pizzak, Barazki Puddinga, Udabe- rriko errolituak, Euskal Tarta eta beste plater asko prestatzen ikasiko dogu.

Euskal Herrixan zelan dago sukaldaritza mugimendua?



Ainhoa Zubizarreta “Txanbua” eta Jurdana Laskurain.

“etxian egiten ez dittuan moduko platerak egiten ikasteko aukeria emotia da ikastaruan helburua”

J: Guk janarixari garrantzi haundixa emoten dotsagu. Euskaldunori beti gustau izan jaku ondo edan eta ondo jatia eta oin be hola da. Auskalo hemen zenbat jatetxe dagan. Eskola asko dare baina ikasle askok laga egiten dabe amaittu aurretik, sukaldaritza oso gogorra dalako. Gainontzian Euskal Herrixan asko lantzen dan gai bat da; telebis- tan, irratixan, liburuetan...

A: Egixa da gizartiak janari bizko- rra bultzatzen gaittuala baina sukalda-

ritza landuak beti eukiko dau garrantzi- xa eta horregaittik emongo dogu guk ikastaro hau.

Sinisten dozue plater afrodisia- kuetan?

J: Esaten dabe txokolatia afrodisia- kua dala.

A: Nik irakurritta daukat esparragua afrodisiakua dala baina nik uste dot hori barik gogorik ez badaukazu...

Zein da sukaldari on bat izateko sekretua?

J: Pazientzia eta imaginaziñua.

A: Janarixa hartu eta mimatzia. Su bajuan plo plo plo. Aman eta amamen moduan egittia, hori da zaila eta hortar- ako lan asko egin bihar da.

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

Futbola

“Nahiz eta galdu beste taldeek errespetua diote Sorari.”

Joan den urtean data hauetan Soraluzeko talde nagusiaren egoera larriaz hitz egiten genuen. Aurten berriz, sailkapenari begiratuta mailari eusteko arazorik gabe izango direla aurrikusten da. Hau honela izatearen errua, hein batean entrenatzailearena da eta berarengaba jo dugu argibide bila. Antonio Galeano “Toñin” da Sorako entrenatzailea, 29 urte ditu eta Elgoibartarra da.

Elgoibartarra izanik nolatan Soraluze entrenatzen? zela etorri zinen hona?

Esan beharra dago talde hau ez dela berria niretzat, jokalaria nintzenez bertan aritua naizelako, urtebete jubencil mailan eta 4 urte erregional mailan. Futbola utzi eta gero, Elgoibarko taldeak entrenatzen aritu nintzen, bi urte kadeteak eta urtebetez jubencilak.

Joan den denboraldiaren amaieran Soraluzeko zuzendaritzak nigan jarri zuen konfidantza eta niretzat oso aukera polita zen Sora entrenatzea. Ilusio handiz eman nuen baietza talde hau beti izan dudalako oso gustoko eta orain denboraldi haseran jasotako konfidantza bueltatzen saiatzen ari naiz.

Kluba ezagutzen duzu beraz, ze aldaketa ikusi duzu klubean?

Egia esan nik taldea utzi nuenetik gauzak ez dira asko aldatu baina tira gutxinaka gutxinaka lan gogorra eginez talde obeago bat izateko pausuak ematen ari direla ikusten da.

Eta jokalaria izatetik entrenatzaile izatera ze aldaketa somatu duzu?

Uf, erabat desberdina da jokalaria izatea edo entrenatzaile izatea.

Entrenatzaile moduan erresponzabili-



Antonio Galeano “Toñin”

tate gehiago daukat, gauzak ez dira berdin ikusten zelai barrutik eta bankilotik, orain lagun talde baten “mandamasa” naizela esan daiteke. Hori bai naiz eta lagun talde bat izan denok dakigu zein den gure betebeharra taldean eta orain arte ondo ari gara funtzionatzen.

Aurten Sorak ez dauka sailkapenean arazorik zeri esker dela uste duzu?

Nik joan den urteko berririk ez daukat, ez nengoelako bertan. Aurtengoari dagokionez, lana ondo egiten ari gara eta hori zelaian antzeman egiten da, jokalariek duten guztia ematen dute eta beste taldeek errespetatu egiten gaituzte.

Herriaren erantzuna nolakoa da?

Erantzuna ona da jokalariek zaleen hurbiltasuna nabari dute. Orain gauzak ondo doazenean, jende gehiago gerturatzten da Ezozira eta hori oso polita da.

Kadeteen denboraldiko lehen porrota

Ihauerietako deskantsuak ez die bat ere ondo egin Sora taldeko gaztetxoenei eta joan den astebukaeran beraien lehen partidua galdu zuten Ikasberri talde Azpeitiarraren aurka.

Emaitzak:

Regionala: Orioko 2 – SORA 3
Jubenila: SORA 2 – Idiazabal 0
Kadetea: Ikasberri 2 – SORA 1

Pala txapelketa


16 Bikotek eman dute izena txapelketan

Apirilaren 15ean hasiko da txapelketa. Honezgero 16 bikoteko zerrenda osatuta dago eta izena emateko zerrenda itxi egin dute. Txapelketako partidua San Andresko frontoian jokatu dira. Antolatzaileak oso gustora eta harrituta azaldu dira txapelketan izango den partehartze handiarekin.

Mendizaletasuna

Igandean Debako Ibilaldi Neurtura

Joan den urtean Soraluzen antolatutako ibilaldi neurtua aurten Deban egingo da. Ibilaldia igandean izango da, martxoaren 16-an eta Soraluzekoa bezain jendetsua izatea espero dute. Soraluzetik autobus bat irtengo da eta eguraldi ona egiten badu itsasoaz eta mendiaz gozatu ahal izango dute.



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Hnos. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Fernando Oregi

“Dotoria ta sofistikatua naiz”

Aurtengo sagardotegiko irteerara animau gara geu be, zela ez! Ta hara nun ikusi dogun Fernando lagun artian, bertako giruaz gozatten. Sagardua eta sagardotegiko girua gogokuak dittuala esan dosku, halan da be badittu beste hainbat afiziño. Seguru gare, konturatu aurretik Everestera be igoko dabela mutil honek.

Izena eta abizena.

Fernando Oregi, gaitzizenez Mister Furgo .

Zelakua da Fernando Oregi?

Dotoria eta sofistikatua naiz.

Bapo geratzeko moduko menua.

Gaurkua adibidez, sagardotegikua.

Orduan sagardotegira bertako menua probatzera etorri zara?

Ez hortara bakarrik. Hemen jende desberdin askokin egon zeinkelako be bai.

Aurtengo sagardotegiko irteerako onena ta txarrena?

Onena jendia eta txarrena sagardua bera.

Gustuko afiziñoren bat?

Aerobika, mendixa eta juergak.

Zein da igo dozun azken mendixa?

Ointxe ez naiz akordaten.

Pirineuetakoren bat, Atxerito edo.

Milioi bat eurokin zer eingo zenduke?

Gastau. Seguruena bidai bat egingo neukela lagunekin.

Amets bat.

Gerrarik ez egotia.

Badakigu bidaiatzia asko gustatzen jatzula , noiz hasi zinan atzerrira bidaiatzen?

Oin dala 7 bat urte egin neban lehenengo bidai.

Bidai horretan ikusi dozun onena?

Jende asko miserixan bizitta be, aberatsak baino hobiak eta eskuzabalaguak dirala.

Eta txarrena?

Leku askotan jendia gosia pasatzen daguala.

Prest al daukazu bidaiaren bat aurtengo?



Fernando Oregi

Aurten Etiopiara juateko asmua daukat hilabete baterako.

Hainbeste bidai eginda, anekdotaren bat kontatzeko?

Iaz Myanmarren egon ginan ta taxi bat hartzera gindozela argirik ez zeukala konturatu ginan. Ilundu zebanian tetxu gainera igo eta linternekin argittu bihar izan genduan bidia. Azkenian 5 ordu

Bertso Begiz

Bertso edar bat jarri nahi dotsat
Mister Furgo lagunari,
zer esan argi bako taxiko
tetxuan jua danari.
Jarraitzeko holaxe,
gauza barrixen gose.
Emon buelta munduari.
Baina etara diapositibak
ta gero kontatu guri.

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

gehixao tardau genduan!

Amaitzeko, txisteren bat kontauko doskuzu ezta?

Ze alde dao lehengo eta oingo andren artian: Lehengueri ipurdixa ikusteko kuleruak baztatu bihar zotsezula. Oingueri berriz, kuleruak baztatu bihar dotsezuz ipurdixa ikusteko.

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarriren 22 behean, telf: 943751780

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Argazki zaharra

1945eko
Kañoi
Fabrikako
langiliak

Argazkixan 1.945ian Sapako Kañoi Fabrikako lana egiten zeben lagun kuadrila bat. Eskumatik ezkerrera “Gorla”, Felix Abarrategi, Patxi Maiztegi, Eusebio Lete, Juan M^a

Larrañaga, (ezezaguna) eta Jose Luis Larrañaga. Behean Mateo Peñalba, Luis M^a Lasa, Joseba Iriondo, Andres Uzin. Elegante elegante nunita irabazle bat egitteko prest edo.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Jesus Ostolaza
Erantzuna: Iturbazahar

Argitalpen honen laguntzaile



kutxa
zuri esker

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko
menua
eta pintxoak.

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Sorluze

anderlipus
antzzeria

kultur errota
biraka dabilen herria sorkuntzan ari den herria

ardoaz



emagalduta batekin maitemintzen den deprabatu baten istorio krudela. neskaren hiltzeak pertsonaiaren trajedia bere gorenera eramango du, amets alkoholikoetan murgildurik. ardoaren apologia egitera dator ignatius, baina sentimendurik arrapaladan etorriko zaizkio behin eta berriro.

Noiz:

Martxoaren 16an 20:00

Non:

Kiroldegiko erakusketa aretoan

Antolatzaileak:



ABIDURĀ HĀNDIKO URTE BĀTEN KRONIKĀ

PĀKO ĀRISTI

MIKEL MĀRKEZ

Kantari eta musikariaren arteko lankidetzaz duela urte batzuk hasi zela, Tribuaren hitz galduak adierazten hasi zirenean hain zuzen. Gogoratu Markezek argitaratutako "Dena hankaz gora" azken diskoan ere Aristiren poemak kantatzen dituela. 2002ko bukaeran berriro elkartzeko beste saio batzuk egiteko urtearen lehenengo hilabeteetan zehar. Asmo konkretua hau da : egunkarietan agertutako berri aukeraketa egin ondoren joan zen urteari errebasoa ematea kantuan eta kontuan. Zuzenean hainbat instrumentu jo eta jendearen konplizitatea ere bilatzen dute .

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

harpidedun

Egin zaitez harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54

635733389 / 635733388

telefonoetara
telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.egunero.info/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Dirulaguntzak: 3035 0092 56 0920055559

Egunero

SORALUZEKO IV.MAITASUN GUTUNEN LEHIAKETA

Martxoaren 10etik Apirilaren 10era ra

PARTEHARTZAILEAK:

Soraluzen erroldatua dagoen hamalau urtetik gorako edozein idazlek parte har dezake.

LANAK:

Lanak euskeraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabeak izan beharko dira. Ez da itzulpenik onartuko.

GAIA:

Idazlanean jorratu beharreko gaia amodio gutuna izango da..

AURKEZPENA:

Gutunak sobre handi batean aurkeztuko dira, egilearen izenik jarri gabe, goititzen batekin. Lanari erantsitako sobre txiki batean, azalean, lanaren izenburua eta egilearen goitizena jarriko dira bistan. Barruan, egilearen datuen berri emango da: izen abizenaak, helbidea eta

telefono zenbakia.

NORA AURKEZTU:

Aurkezten diren lanak, Soraluzeko Udaleko Euskara, Hezkuntza eta Gazteria zerbitzura edota 27. Posta kutxatilara bidaliko dira.

SARIAK:

1. saria: 150 E
2. saria: 100 E

Euskalkian idatzitako gutunik onena: 75 E

ANIMATU ETA IDATZI !

ANTOLATZAILEAK:

BABESLEAK:

